

BANDOA

Herritar guztiei jakinarazi nahi dizuet 2010eko urtarrilaren 14an egindako Udalbatzak, beste gai batzuren artean Larraulgo Eskolari buruz, emandako eta emango diren pausoak Herritarrei jakinaraztea erabaki zuen.

Alde batetik, jakingo duzue 2008-2009 ikasturtea Asteasuko Pello Errota ikastetxearen menpe zeuden haur hezkuntzako bi gelarekin hasi ginen.

2009ko apirilaren 27an Hezkuntza sailak, 2009-2010 ikasturtean berdin jarraituko genuela eta 2010-2011 ikasturterako eskola propioa (2-12 adin arteko zerbitzua) izango genuela, jakinarazi zigun idatzi batean.

Ondoren bi bilera izan ditugu Hezkuntzako zentroetako buru den Marcelino Hernandez jaunarekin. Bilera hauetako jarrera ezkorra izan da eta idatziz bidali zigutena ez dutela beteko ahoz esan digute.

Guzti hau kontutan izanik, Udalak, Larraulek, 2-12 adineko umeentzat, eskola propio bat izan dezan, lanean jarraituko duela konpromisoa hartzen du. Hurrengo pausoak ondorengoak izango dira:

- Beste Udal eta Elkarteetara mozio bat bidaltzea Larraulgo eskolarekin elkartasuna adierazi dezaten.
- Hezkuntza saileko Isabel Celaá sailburuarekin hitzordua eskatu, gure eskubidea den eskola zerbitzua herrian abian jarri dezan.

Azkenik , Udalak eskerrak eman nahi dizkio Larraulgo Guraso Elkarteari, eskola aurrera ateratzeko emandako laguntzagaratik eta egin duten lanengatik.

Larraulen, 2010 urteko urtarrilaren 19an
ALKATEA